



**EIBAR**  
Udala | Ayuntamiento



**EIBARKO UDALA**  
Ayuntamiento de Eibar

**HAUTAKETA PROZESUA**

**INFORMATIKA TEKNIKARI 2 PLAZA**

**Lehenengo ariketa**

**2026-03-25**



**1 Zer sustatu behar dute botere publikoek, 1978ko Konstituzioan ezarrita dagoenaren arabera?**

- 1a) Gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna gizarteko kide guztientzat berdinak izateko inguruabar zehatzak.
- 1b) Gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasun eta berdintasunerako inguruabar zehatzak, Konstituzioa eta legeak errespetatuz.
- 1c) Gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna ahalik eta handienak izateko inguruabar zehatzak.
- 1d) Gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izateko inguruabar zehatzak.

**2 Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, nork zaindu eta bermatuko du herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilera egokia?**

- 2a) Lehendakariak.
- 2b) Euskal botere publikoek, beren eskumen-eremuan.
- 2c) Eusko Legebiltzarrak, bere eskumen-eremuan.
- 2d) Arartekoak.

**3 Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen arabera, Estatuaren lurralde-antolamenduaren oinarrizko erakundea:**

- 3a) Autonomia Erkidegoa da.
- 3b) Eskualdea da.
- 3c) Probintzia da.
- 3d) Udalerria da.

**4 Tokiko araubidearen oinarrien legearen arabera, hauetatik zer eskumen dagokio udalbatzari?**

- 4a) Alkateordeak izendatzea.
- 4b) Udal zerbitzuak eta udal obrak zuzentzea, ikuskatzea eta sustatzea.
- 4c) Erregelamendu organikoa eta ordenantzak onartzea.
- 4d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**5 Eskubide hauetatik zein ez zaie aitortzen Administrazio Publikoarekin harremanak izango dituzten pertsoneri, 39/2015 Legearen 13. artikuluan jasotakoaren arabera?**



- 5a) Edozein hizkuntza erabiltzeko eskubidea.
- 5b) Baliabide elektronikoak erabiltzeko laguntza jasotzea administrazio publikoekiko harremanetan.
- 5c) Legean identifikaziorako eta sinadura elektronikorako aurreikusitako bitartekoak lortzea eta erabiltzea.
- 5d) Konstituzioak eta legeek aitortzen dizkieten gainerako guztiak.

**6 Zer dio urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena), kopia autentikoei buruz (27. art.)?**

- 6a) Kopia autentikoen jatorrizko dokumentuen baliozkotasun eta efikazia bera izango dute.
- 6b) Kopia autentikoen jatorrizko dokumentuen baliozkotasun bera izango dute, baina efikazia ez.
- 6c) Kopia autentikoen jatorrizko dokumentuen efikazia bera izango dute, baina baliozkotasuna ez.
- 6d) Kopia autentikoen ez dute izango ez jatorrizko dokumentuen baliozkotasun bera, ezta efikazia bera ere.

**7 Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen egoitza elektronikoari buruzko 38. artikuluan oinarrituta, baieztapen hauetatik zein da zuzena?**

- 7a) Egoitza elektronikoek komunikazio seguruak ezartzea ahalbidetzen duten sistemak izango dituzte, beharrezkoak diren guztietan.
- 7b) Egoitza elektronikoek, identifikatzeko eta haiekin komunikazio segurua bermatzeko, webgunea edo bitarteko baliokidea kautotzeko (autentifikatzeko) ziurtagiri aitortuak edo kualifikatuak erabiliko dituzte.
- 7c) Egoitza elektronikoetan informazioak, zerbitzuak eta transakzioak argitaratzean, irisgarritasun- eta erabilera-printzipioak errespetatuko dira, horri buruz ezarritako arauen, estandar irekien eta, hala badagokio, herritarrek oro har erabiltzen dituztenen arabera.
- 7d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**8 Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege organikoaren arabera, adingabe baten datu pertsonalen tratamendua bere adostasunean oinarritu ahal izango da, baldin eta adin honetatik gorakoa bada:**

- 8a) 13 urte.
- 8b) 14 urte.
- 8c) 16 urte.
- 8d) 18 urte.



**9 Zein da Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalaren (EEN) helburu nagusia?**

- 9a) AAPPetan informazioaren segurtasuna bermatzea, beharrezkoak diren zibersegurtasunaren inguruko neurrien bitartez.
- 9b) Ahalbidetzea administrazio publikoen sistemak eta zerbitzuek informazioa elkarrekin partekatu eta batera lan egin ahal izan dezaten modu eraginkorren.
- 9c) Zerbitzu teknologikoen eta hornitzaileen kontratazioa arautzea administrazio publikoen aldetik.
- 9d) Administrazioaren sistema informatikoetan datuak biltegitzeko eta ezabatzeko arauak ezartzea.

**10 Zein da dokumentu elektronikoak epe luzera kontserbatzea bermatzen duen formatua?**

- 10a) RTF
- 10b) ODT
- 10c) DOCX
- 10d) PDF/A

**11 Zer fitxategi-sistema da Linux sistemaren natiboa?**

- 11a) HFS+
- 11b) FAT32
- 11c) ext4
- 11d) NTFS

**12 TPMren zer bertsio da behar den gutxienekoa Windows 11 instalatzeko?**

- 12a) TPM 2.5
- 12b) Ez du TPMrik behar
- 12c) TPM 2.0
- 12d) TPM 1.0

**13 Zer RAID mailak eskaintzen du erreduantzia eta paritatea, gutxienez hiru diskorekin?**

- 13a) RAID 10
- 13b) RAID 1
- 13c) RAID 0
- 13d) RAID 5



**14 Zer gertatzen da Thin Provisioning erabiltzean?**

- 14a) Ez da bateragarria snapshot-ekin
- 14b) Diskoa hazi egiten da Makina Birtuala (VM) erabili ahala
- 14c) Diskoak hasieratik esleitutako tamaina guztia erabiltzen du
- 14d) Diskoa automatikoki kopiatzen da

**15 Ingurune korporatibo batean, zer erabilera dauka VLAN-en bidezko sarearen segmentazioak?**

- 15a) Interneterako sarbidea ahalbidetzea
- 15b) Banda-zabalera handitzea
- 15c) Broadcast-domeinua murriztu eta segurtasuna hobetzea
- 15d) Eraso fisikoak saihestea

**16 Zer da “snapshot” bat ingurune birtualizatu batean?**

- 16a) Makina Birtual (VM) baten errestituzio-puntu bat
- 16b) Logs txosten bat
- 16c) Klon iraunkor bat
- 16d) Segurtasun-kopia konpleto bat

**17 Zer sistema da disko gogor osoak modu natiboan Windows ingurunetan zifratzen dituenak?**

- 17a) EFS
- 17b) VeraCrypt
- 17c) BitLocker
- 17d) TrueCrypt

**18 Zer protokolo erabiltzen da irteera-korreo autentifikatueterako?**

- 18a) IMAP
- 18b) SNMP
- 18c) SMTP
- 18d) POP3

**19 Zer da 802.1X?**

- 19a) Zifratu mota bat Wi-Fi sareetan bakarrik erabiltzen dena



- 19b) Metodo automatiko bat IP helbideak esleitzeko
- 19c) Zuntz optikoaren bidezko transmisioetarako estandar eskusibo bat
- 19d) Sare-sarbiderako kontrol-protokolo bat, autentifikazioan oinarritua

**20 Zer aukerak deskribatzen du ondoen zer den API REST bat?**

- 20a) Fitxategi-sistema banatu bat
- 20b) Datu-base erlazional bat
- 20c) HTTP eta URL bidez identifikatutako baliabideak erabiltzen dituen arkitektura-estilo bat
- 20d) Azken erabiltzaileentzako soilik izango den interfaze grafiko bat

**21 IPv4 sareetan, zer protokolo da MACera doazen IP helbideen bereizmena kudeatzen duena?**

- 21a) DNS
- 21b) DHCP
- 21c) ICMP
- 21d) ARP

**22 Zer tresna erabiltzen da software bertsioak kontrolatzeko?**

- 22a) DHCP
- 22b) LDAP
- 22c) Git
- 22d) WSUS

**23 Zer egiten du LACP protokoloak?**

- 23a) Bezeroak autentifikatzen ditu
- 23b) MAC helbideak sortzen ditu
- 23c) Hainbat ataka fisiko lotzen ditu lotura logiko bakarrean
- 23d) VLANak sortzen ditu

**24 Zer gertatzen da GPO bat erabiltzaileak soilik dituen OU bati lotuz gero, baina GPOak soilik ekipo-konfigurazioak baditu?**

- 24a) Normaltasunez aplikatzen da
- 24b) Ez da inolako konfiguraziorik aplikatzen
- 24c) Soilik aplikatzen da, baldin eta OUak gaitutako herentzia badu.
- 24d) Erabiltzailearen GPO bihurtzen da



**25 VLAN sare batean, zer dispositibok ahalbidetzen du VLAN desberdinen arteko komunikazioa?**

- 25a) Errepikagailua
- 25b) 2. geruzako switcha
- 25c) Hub
- 25d) 3. geruzako router edo switcha

**26 Hauetatik zein EZ da Windows Erregistroaren adar nagusi bat?**

- 26a) HKEY\_SYSTEM\_CONFIG
- 26b) HKEY\_USERS
- 26c) HKEY\_CURRENT\_CONFIG
- 26d) HKEY\_CLASSES\_ROOT

**27 Windowsen, gpupdate /force komandoaren helburua hauxe da:**

- 27a) Sistema eragilearen eguneratzea behartzea
- 27b) Talde-politikak berehala eguneratzea
- 27c) ARP taula freskatzea
- 27d) Sistemaren zerbitzuak berrabiaraztea

**28 Zein da sistema eragile mailan edukiontzia isolamenduan exekutatzea ahalbidetzen duen teknologia?**

- 28a) Hyper-V
- 28b) Docker
- 28c) Citrix
- 28d) KVM

**29 Zein da CA (Autoritate Ziurtagiri-Emaille) baten helburu nagusia PKI batean?**

- 29a) Erakunde baten sare-trafiko guztia automatikoki zifratzea
- 29b) Ziurtagiriak jaulki (emititu) eta sinatzea, identitate bat gako publiko batekin lotuz (konfiantza-katea)
- 29c) Firewall bat ordeztzea sarbide-balidazioan
- 29d) Dispositibo guztiei IP helbideak ematea edo esleitzea

**30 Zer funtzio du ONT dispositibo batek?**



- 30a) Zuntzaren seinale optikoa routerrerako seinale elektriko bihurtzea
- 30b) Etxerako WI-Fi sarea sortzea
- 30c) Kontratututako abiadura handitzea
- 30d) Dispositibo guztiei IP helbideak ematea edo esleitzea

**31 Zer osagai da administrazioen artean erregistro-idazpenak trukatzeko ahalbidetzen duena?**

- 31a) DIR3
- 31b) SIA
- 31c) REA
- 31d) SIR

**32 Zer da Kubernetes?**

- 32a) Firewall bat
- 32b) Edukiontzari-orkestadore bat
- 32c) Datu-baseak kudeatzeko sistema bat
- 32d) Programazio-lengoaia bat

**33 Zer eduki behar du espedientearen indize elektronikoa?**

- 33a) Gestorearen informazio pertsonala
- 33b) Azterna digitaldun dokumentuen zerrenda
- 33c) Prozeduraren laburpena
- 33d) Dokumentuen kopia soilak

**34 Maila berean binkulatutako bi GPO-k (esaterako, OU bera) ezarpen kontraesankorrak dituztenean, bietako zein aplikatzen da azkenean?**

- 34a) Link Order zenbakirik baxuena duen GPOa
- 34b) Ezarpenak automatikoki bateratzen dira
- 34c) Sortu berriena den GPOa
- 34d) Link Order zenbakirik altuena duen GPOa

**35 Zer ataka publikatzen da `docker run -p 8080:80 nginx` komandoarekin?**

- 35a) Host-aren 8080 ataka edukiontzia 80ra mapatzen da
- 35b) 80 eta 8080 atakak publikatzen dira
- 35c) Host-aren 80 ataka edukiontzia 8080ra mapatzen da
- 35d) Barruko 80 ataka bakarrik publikatzen da



**36 Zein da bolumen (volume) baten funtzioa Dockerren?**

- 36a) Edukiontzia berriz ziklotik kanpoko datuak iraunaraztea
- 36b) Sarean edukiontzi anitz konektatzea
- 36c) Edukiontzia erantzutarako eskuragarri dagoen RAM-a handitzea
- 36d) Prozesatze-abiadura handitzea

**37 Hauetako zein EZ da kategoria bat, TIA/EIAREN arabera?**

- 37a) 5e Kategoria
- 37b) 5a Kategoria
- 37c) 7 Kategoria
- 37d) 6A Kategoria

**38 Zer gertatzen da OST artxiboa erabiltzailearen PCan ezabatuz gero?**

- 38a) Outlook funtzionatzeari uzten dio betiko eta erabiltzailearen profil osoa instalatu behar da berriro
- 38b) Outlookek, hastean, automatikoki sortzen du OST artxibo bat, zerbitzarian biltegiatutako postontziaren tokiko kopia bat baino ez da-eta.
- 38c) Erabiltzailearen postontziko mezu guztiak ezabatzen dira betiko, zerbitzarian biltegiatutakoak barne.
- 38d) Outlook blokeatu egiten da, OST artxiboak saioa hasteko beharrezkoa den erabiltzailearen pasahitza duelako.

**39 Nola du izena Docker Composeren konfigurazio-fitxategiak?**

- 39a) docker-services.xml
- 39b) docker-compose.yaml
- 39c) docker-config.yml
- 39d) compose-setup.json

**40 Zer zifratu motak erabiltzen ditu kode desberdinak datuak zifratu eta desfifratzeko?**

- 40a) Hash zifratuak
- 40b) XOR zifratuak
- 40c) Zifratu asimetrikoak
- 40d) Zifratu simetrikoak



**41 Jarraian aipatzen diren mekanismoetatik, zein erabiltzen da saihesteko OU batek maila altuagoko GPO-ak heredatzea?**

- 41a) Enforced
- 41b) Block Inheritance
- 41c) WMI Filtering
- 41d) Security Filtering

**42 Zein da UTP Cat 5e kable baterako gomendatutako gehieneko luzera?**

- 42a) 300 metro
- 42b) 50 metro
- 42c) 100 metro
- 42d) 10 metro

**43 Windosen zer da SID-a?**

- 43a) Hardwararen identifikatzaile bat, sistemaren lizentzia aktibatzea helburu duena
- 43b) Identifikatzaile bakarra erabiltzaile, talde eta ekipoentzat
- 43c) Ahaztutako pasahitzak berreskuratzeko bakarrik erabiltzen den balio bat
- 43d) Sistema eragilearen bertsioa zehazteko balio duen kode bat

**44 Posta-zerbitzari batean, IMAP protokoloak hauxe ahalbidetzen du:**

- 44a) Mezuak automatikoki deskargatu eta ezabatzea
- 44b) Postontzietarako urruneko sarbidea, mezuak zerbitzarian gordez
- 44c) DNS sinkronizatzea
- 44d) Mezuak bidaltzea autentikazioarekin

**45 Zein da exekutatzen ari diren edukiontzi guztiak erakusten dituen komandoa?**

- 45a) docker list
- 45b) docker ps
- 45c) docker containers
- 45d) docker show

**46 Zer ezaugarri du OEM lizentzia batek?**

- 46a) Erakunde baten barruan mugarik gabeko instalazioak egiteko aukera ematen du
- 46b) Ekipo batean baino gehiagotan instalatu daiteke aldi berean, mugarik gabe



- 46c) Ekipoaren hardwarera lotuta geratzen da eta ezin da transferitu
- 46d) Behin betiko aktibatu aurretik, 30 eguneko hasiera-epea du

**47 Zer da Dockerfile bat?**

- 47a) Dockerren artxibo bitar konpilatu bat
- 47b) Docker deabruaren konfigurazio artxibo bat
- 47c) Edukiontziazen log erregistro bat
- 47d) Testu-artxibo bat Docker irudi bat sortzeko jarraibideekin

**48 Zer da "Failover"-a HA firewall batean?**

- 48a) Konfigurazioen backup-a
- 48b) Planifikatutako berrabiarazpena
- 48c) Automatikoki bigarren ekipora aldatzea, lehenengoak huts egiten duenean
- 48d) Saioaren amaiera

**49 Web-aplikazioetan zer protokolo erabiltzen da token-etan oinarritutako federazio-baimenean?**

- 49a) TACACS+
- 49b) RADIUS
- 49c) OAuth2
- 49d) LDAP

**50 Veeam-en, zer job mota erabiltzen da dagoeneko badauden errestituzio-puntuak bigarren mailako biltegi batera kopiatzeko (ez sortzeko)?**

- 50a) File Copy Job
- 50b) Instant VM Recovery
- 50c) Backup Copy Job
- 50d) SureBackup Job

**51 Zein da MBR partizio-taula duen disko batek eduki dezakeen gehieneko neurria?**

- 51a) Ez du mugarik
- 51b) 5 TB
- 51c) 2 TB
- 51d) 1 TB



**52 Active Directory duen Windows Server ingurune batean, zer mekanismok ahalbidetzen du konfigurazio automatikoak aplikatzea antolaketa-unitateei?**

- 52a) WSUS
- 52b) Group Policy Objects (GPO)
- 52c) PowerShell remoting
- 52d) Task Scheduler

**53 Birtualizazio-azpiegitura batean, zer baliabide kudeatzen da “vMotion” bidez VMware-an?**

- 53a) Lizentzien sinkronizazioa
- 53b) Disko birtualen zifratua
- 53c) Etenik gabeko VMen migrazioa host-en artean
- 53d) NAS datuen erreplikazioa

**54 Hauetako zein da telefono-zentralitetarako software libre bat?**

- 54a) Avaya IP Office
- 54b) Cisco CallManager
- 54c) 3CX
- 54d) Asterisk

**55 Zergatik da LoRaWAN ohiko aukera bat hiri bateko sentsoare sakabanatueterako?**

- 55a) Oso kontsumo baxuarekin lan egiten duelako eta irismen handia eskaintzen duelako
- 55b) Tarteko gateway-ak saihesten dituelako
- 55c) Mezu guztiak hardwarean zifratzera behartzen duelako
- 55d) 4Gren pareko transmisio-abiadurak bermatzen dituelako

**56 Zerk definitzen du eskuz idatzitako sinadura biometriko bat?**

- 56a) Eskuz idatzitako sinadura digital bat da, bektore-marrazki soil gisa biltegitratzen dena
- 56b) Paperean egindako eskuz idatzitako sinadura bat da, OCR bidez formatu elektronikora bihurtua.
- 56c) Eskuz idatzitako sinadura bat da, dispositiboan atzematen dena, eta dokumentuari kriptografikoki lotutako trazu-datuak erregistratzen dituena (esaterako, presioa edo abiadura).



56d) Eskuz idatzitako sinadura bat da, PDF dokumentu batean irudi gisa eskaneatua eta itsatsia.

**57 Linux-en, fitxategi baten gainean chmod 777 komandoa erabiltzeak honako hau ematen du:**

- 57a) Jabeari rw- ematen dio, taldeari rw- eta rw- besteei.
- 57b) Jabeari rwx ematen dio, taldeari rwx eta rwx besteei.
- 57c) Jabeari rwx ematen dio, taldeari rwx eta r-x besteei.
- 57d) Jabeari rwx ematen dio, taldeari r-x eta --- besteei.

**58 Zein da /etc/fstab-ren funtzio nagusia?**

- 58a) Prozesu-lehentasuna kudeatzea (nice)
- 58b) Artxibo-sistemak eta aukerak zerrendatzea automatikoki muntatzeko
- 58c) Sistemaren erabiltzaileak eta taldeak konfiguratzeko
- 58d) Sistemaren firewallaren arauak zehaztea

**59 Zer objektuk zehazten ditu partekatutako baliabideen gaineko baimenak?**

- 59a) Group Policy
- 59b) DNS Zone
- 59c) OU
- 59d) ACL

**60 Zein da komando zuzena Docker Hub-etik nginx irudi bat deskargatzeko?**

- 60a) docker pull nginx
- 60b) docker get nginx
- 60c) docker fetch nginx
- 60d) docker download nginx

## **PREGUNTAS DE RESERVA**



- 61 Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 legegintzako dekretuaren 21.1 artikulua arabera, enplegu publikoko lanpostuak lortzeko, betetzeko eta mailaz igotzeko hautaketa-prozesuak erregulatzen dituzten administrazio-arauek edo -egintzek, praktikaldiak barne hartuta, honako hauek jaso behar dituzte:**
- 61a) Klausula bat, zeinaren bidez, gaikuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emango zaien emakumeak % 10 baino gutxiago diren Administrazioaren kidego, maila, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak izatea, sexuan oinarritutako diskriminaziorik eragiten ez dutenak, hala nola lanpostuak lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.
  - 61b) Klausula bat, zeinaren bidez, gaikuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emango zaien emakumeak % 20 baino gutxiago diren Administrazioaren kidego, maila, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak izatea, sexuan oinarritutako diskriminaziorik eragiten ez dutenak, hala nola lanpostuak lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.
  - 61c) Klausula bat, zeinaren bidez, gaikuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emango zaien emakumeak % 30 baino gutxiago diren Administrazioaren kidego, maila, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak izatea, sexuan oinarritutako diskriminaziorik eragiten ez dutenak, hala nola lanpostuak lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.
  - 61d) Klausula bat, zeinaren bidez, gaikuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emango zaien emakumeak % 40 baino gutxiago diren Administrazioaren kidego, maila, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak izatea, sexuan oinarritutako diskriminaziorik eragiten ez dutenak, hala nola lanpostuak lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.
- 62 Gardentasunari, Informazio Publikoa eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko 19/2013 legearen arabera, informazioa eskuratzeko eskubidea mugatu ahal izango da, baldin eta informazioa eskuratzeko kaltea eragiten badie:**
- 62a) Sekretu profesionalari eta jabetza intelektual eta industrialari.
  - 62b) Interes ekonomikoei eta merkataritzakoei.
  - 62c) Ingurumenaren babesari.
  - 62d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.



**63 Web-aplikazioen garapenean, zer baieztapen da zuzena HTML, CSS eta JavaScript lengoiaiei buruz?**

- 63a) Hiru lengoaiak zerbitzariaren aldean bakarrik erabiltzen dira.
- 63b) HTML-k logika definitzen du; CSS-k egitura; eta JavaScript-ek diseinua
- 63c) HTML-k egitura definitzen du; CSS-k aurkezpena; eta JavaScript-ek portaera dinamikoa
- 63d) HTML-k diseinua definitzen du; CSS-k logika; eta JavaScript-ek datu-basea

**64 Posible al da snapshot bat sortzea, Makina Birtuala (VM) piztuta dagoela?**

- 64a) Ez, soilik itzalita
- 64b) Bai, eta aukeran memoria ere kapturatuta
- 64c) Soilik HA duten vCenter-etan
- 64d) Bai, baina memoria kapturatu gabe

**65 Zer esan nahi du OU-k Active Directory-n?**

- 65a) Operation Unit
- 65b) Office Unit
- 65c) Organizational Unit
- 65d) Object Unit

**66 Zer esan nahi du switch bat PoE izateak?**

- 66a) Aukera ematen duela abiadura 10 GBps-raino handitzeko, aldaketa fisikoen beharrik gabe
- 66b) Haren ataka guztiek zuntz optikoko moduluen bitartez soilik funtzionatzen dutela
- 66c) Energia elektrikoz hornitu ditzakeela dispositiboak Ethernet kablearen bidez
- 66d) Komunikazio-ataka bakoitzeko elikatze-iturri banatua eskatzen duela

**67 Zer da SNMP?**

- 67a) Sare-ekipo industrialetan erabiltzen den konektore fisiko bat.
- 67b) Urrutiko sareen artean VPN tunelak zifratzeko pentsatuta dagoen protokolo bat
- 67c) Sareko gailuak urrutiko kontrolaren bidez monitorizatu eta kudeatzeko protokolo bat
- 67d) Kableatu estandar bat, bulego-sareetarako egituratua.



**68 VMware vSpheren, makina birtual batek bere artxiboak banatuta eduki ditzake hainbat datastoretan?**

- 68a) Bai, baina bakarrik VMa itzalita badago
- 68b) Bai, baina vSAN duten inguruetan
- 68c) Ez, VMaren artxibo guztiak datastore bakarrean egon behar dira beti.
- 68d) Bai, haren disko birtualak (VMDK) datastore desberdinetan egon daitezke

**69 Baieztapen hauetako zein EZ da zuzena IP gatazkei dagokienez?**

- 69a) IP gatazkek konektibitate-galera eragin dezakete ekipo batean edo zenbaitetan
- 69b) IP gatazkak Wi-Fi sareetan bakarrik gerta daitezke, inoiz ez kableatutako sareetan
- 69c) IP gatazka bat eskuzko ezarpen oker baten ondorioz edo DHCP zerbitzarian izandako akatsen ondorioz gerta daiteke
- 69d) IP gatazka bat gertatzen da bi dispositibok sare berean helbide bera erabiltzen dutenean

**70 Zer ezaugarri ditu Windows 11 Enterprise LTSC bertsio batek?**

- 70a) Microsoft Storeko aplikazioak soilik ditu
- 70b) Interfazaren funtzio eta aldaketak jasotzen ditu zenbait hilabeterik behin
- 70c) Epe luzerako asistentzia eskaintzen du, ezaugarri-eguneraketa gutxiago eta egonkortasun handiagoa.
- 70d) Etxe-erabilerarako dago diseinatuta, aldaketa sarriekin